

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko abenduaren 14a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Nafarroa: Harrapari negutarren errolda egiten ari da egunotan Gorosti elkarteak
Inaxio Perurena: «Orain ez dit hainbesteko ilusiorik egiten aitarekin konparatzeak»

Ibar hezeetan mendi bizikletaz

Bizikletaz ibiltzeak mendia beste modu batez ezagutzeko parada eskaintzen du, eta oinez joaterakoan baino leku gehiago ezagutzeko aukera ematen. Eta Nafarroan mendi bizikletaz ibiltzeko leku zoragarriak daude. Jon Gurutziaga iruindarrak mendi bizikletaz egiteko hogeita ibilbide biltzen dituen liburua osatu berri du. Ibilbideok Nafarroako ibar hezeak zeharkatzen dituzte, Ezkabarte, Anue, Ultzama, Baztan, Basaburua, Bortziriak, Larraun, Araitz eta Xareta, bertan baitaude «mendi bizikletaz egiteko ibilbide onenak».

Nafarroa • Miru gorriak zenbatzen

Negua Nafarroan
igarotzen duten miru
gorriak zenbatzen ari
da asteotan Gorosti
Natur Zientzien
Elkartea. Ez da lan
makala eta,
horregatik, txoriak
ikustea gustuko
duen edonoren
laguntza eskertuko
lukete.



Gorosti elkarteak harrapari negutarren errolda
eginen du abenduan eta urtarrilean



Miru gorri bat, zeruan, eta Alfonso Llamas, Gorostiko idazkari nagusia, zeruari begira. • OSKAR MONTERO

MOTA HONETAKO ERROLDAK 1993an eta 1994an egin zituzten lehenbizikoz. Iaz berriz ere egin zuten, 120 bat lagunen parte-hartzearekin. Iazkoa ornitologo boluntarioen talde handi batekin berriz elkartzeko balio izan zitzaion Gorostikoei, baita metodologia berri eta hobetzeko eta esperientziarik gabeko jendea trebatzeko ere. Gorostiko idazkari nagusi Alfonso Llamasek adierazi duenez, badirudi aurtengoan boluntario gehiago elkartuko direla.

Errolda osatzeko, lehenbizi etzalekuak, lo egiteko lekuak, aurkitu behar dituzte, eta gero etzaleketan banan-banan zenbatuko dituzte miru gorri guztiak, eta, bide batez, beste zenbait espezieetako aleak ere bai: zapelatz arruntak, belatz gorriak, beleak, mikak, bele tikiak eta artzandobiak. Azaroaren 27an hasi ziren etzalekuak bilatzen.

Etzalekuak edozein egunetan bila daitezke. Baina gero, pare bat egunean, etzalekuen errolda koordinatua egin behar da. Asteburu honetan behin-behineko bilaketa egingen dute eta urtarrilaren 18 eta 21 egunen bitartean, behin betikoa.

Edonork parte har dezake

Erroldatzean parte hartzeko aukera badago. Bihar Gorostiren egoitzan elkartuko dira (Caldereria, 34), 15:30ean, gero Iruñeriko etzalekuetara joateko.

Etzalekuak ongi kokatu ondoren, urtarrilaren 18tik 21era bitartean etzalekuak kolaboratzaileen artean banatu eta miruak zenbatzeri ekinen diote.

Nahi duenak har dezake parte erroldatzean. Miruak eta aipatutako espezieetako aleak zenbatu beharko ditu kolaboratzaileak, eta ondoren fitxa bat bete.

Ez da lan zaila, baina, hori bai, txoriak ikusteko zaletasuna beharrezkoa da.

Erroldatzean Internet bidez ere parte har daiteke. <http://pagina.de/gorosti> webgunean erroldatuko diren hegaztien marrazkiak, aztertuko diren lur eremuen mapa, bete beharreko fitxen ereduak, bilera eta ateraldien egunak, behin-behineko emaitzak eta abar eskuratzen ahal dira.

«Eta zertarako zenbatu nahi dituzte miru gorriak?», pentsatuko du batek baino gehiagok. Bada, iazko erroldaren karian, eman zigan erantzuna Alfonso

Llamasek: «Ebro uhaldearen harana garrantzitsua da miruaren hibernazioan. Neguan Nafarroan ditugun miruak Ingalaterratik edo Alemaniatik etorri dira. Hortaz, Europako miruen populazioa zer moduz dagoen jakiteko balio digu hemen zenbatzeak, udan zailagoa baita miruak kontatzea».

Mirua, hegazti harrapari guzaien gisara, legeak babesten du Europa osoan. Izan ere, harrapariak beharrezkoa dira izurriak ez zabaltzeko.

→ Asier Azpilikueta

Iruñea

Euskarak
Nafarroan duen
egoera juridikoa

EUSKARA KULTUR ELKARGOAK, gaurko eta biharko, jardunaldiak antolatu ditu, euskarak Nafarroan duen egoera juridikoa aztertzeko. Hiru arrazoi eman dituzte halako azterketa egiteko: «Aurten Europako hizkuntzen urtea ospatzen delako, Nafarroan dagoen euskarari buruzko legerik garrantzitsuenak hamabortz urte egin dituelako eta Espainiako Gobernuak Hizkuntz Gutituen Europako Agiria sinatu duelako». Horretaz gain, Euskara elkargokoek kontuan izan dute urte honetan «Nafarroako Gobernuak esparru juridikoan izan duen jarrera, hain zuzen ere».

Jardunaldietan hizkuntzaren garapenean garrantzitsuak diren hirü esparru aztertuko dituzte: euskarak Estatuaren Administrazioan, Nafarroako Gobernuan eta udaltan duen egoera juridikoa, euskarak derrigorrezko irakaskuntzan eta unibertsitatean duen egoera juridikoa eta egoera juridikoak gizartearen duen eragina.

Jardunaldiak Tres Reyes hotelean izanen dira. Gaurko saioan, 17:00etatik aurrera, honako hauek hartuko dute parte: Jose Maria Satrustegi euskaltzainak, Europako Hizkuntza Gutituen Bulegoko lehendakari Bojan Argemik eta Kataluniako hizkuntza gutituen elkarte bateko lehendakari Aureli Argemik. Biharkoan, 10:00etatik aurrera, Isidro Rekarte euskara teknikaria eta Jose Maria Rodriguez Otxoa Hizkuntza Politikako zuzendari ohia, Maite Gorospe, Pablo Sotes eta Francisca Zabaleta irakasleak, Alberto Barandiaran kazetaria eta Carlos Vilches soziologoa izanen dira.

→ Asier Azpilikueta

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Asteburu gau hotzetan bikote erromantikoek Gaztelugibela dute beti nahiago. Bereziki, etxerik ez dutenak omen dira erromantikoenak, eta horientzat hiri orok dauka bere Kandahar partikularra, maitasunaren hormona klandestinoak aske ibiltzen diren haitzulo gune ezkutua. Gurean, Gotorleku inguruko belardi hotzaren gainean asetzen dute beroaldia nerabe hasi berriek eta beterano nostalgikoek.

Tora Boran, udaltzainak sartu ezin diren udal horretan, hantxe dute topalekua besarkatuta zilipurdi lizunak emateko prest dauden guziek. Gainera, bikote bakoitzak bere senari jarraiki edo esperientziaren poderioz ikasten du jokabide kodea.

Zuhaitzek banatzen dute intimitate eremua. Aurreneko zita dutenak errepede ondoko bankuan esertzen dira, bi bare itsatsiren modura. Aldiz, are harresi

Tora Bora

gunetara barnerago, gero eta handiagoa izaten da bizipen eta agitazioa. Adituenak Tora Borako Kobazulo sakonean etzanda egoten dira: bizkarra, zero gradu azpitik izoztutako harrian; bularraldeak, berriz, maitearekin konexioan, labea bezain bero. Plural taberna igaro ondoren, bikoteak isilik gelditzen dira, belardi ilunei begira, instant horretan film pornoetako musika berezia beren belarrietan jotzen hasiko balitz bezala.

Foru Tora Borako harriek mota guztietako jarrera eta tamainak ikusi dituzte, inork baino hobeki ikasi dute kamasutrararen koran sakratua. Horiez gain, Pio XII.a etorbideko termometro digitalak agintzen du nola-

koa izanen den sexu jardura: neguan ti-ta, udaran post-solasaldi samurra izarrei begira... Iruñeko Kandaharrean irauteak bai baduela meritua, meritua, meritua.

Jabe daitezela agintariak etxebizitza baten faltak zenbat kalte egiten dion gazteriaren bizitza kalitateari; horren isplua da Kandahar. Hala ere, Gaztelugibelan egin da aurrerapen nabaririk. Orain kulero eta kondoi koloredunen besta izaten ohi da, hain zuzen ere, 36ko gerran gorriak fusilatzen zituzten harresi gris horietan.

Nolanahi ere, ez du aurkitzen edonork Kandaharreko bidea. Batzuek, etxea eduki arren, beti legez jarraitu beharko baitute; ez hotz, ez bero, eguberri osoan turroirik ezin ahaztu eraman, beste urte batez. Izan ere, miraria omen da konpainia onean Tora Borako haitzuloetara ailegatzea.

Bera •

Herriko etxea, itxura txarrean

Konpontzeko premia larria du udal eraikinak, hainbat zati erori ondoren

EZ DA ORAINGOA BERA-ko herriko etxearen egoera kaskarra. 1983tik, teilatua eta kanpoko paretak moldatu zirenetik, ez da inongo konponketarik egin herriko etxean. Joan den azaroaren 23tik, udaletxeko teilatupeko igeltsu zati bat erori eta udal langile baten autoa azpian harrapatu zuenetik, larriagotu da egoera. Hiru urteko planean diru laguntza eskatu zion Berako Udalak Nafarroako Gobernuari, baina ez zuen inongo laguntzarik jaso. Hori dela eta, Berako Udaleko ordezkariak, alkatea buru zela, Gurrea kontseilariarekin elkartu ziren udal eraikinaren egoera tamalgarriaz solastatzeko. Hala, kanpoko paretan eta teilatuaren konponketa moldatzeko diru laguntza emanen zuela onartu zuen Nafarroako Gobernuak. Hala ere, azaroaren 21ean egingako hurrengo bileran, gauzak aldatu egin ziren. Hasiera batean aurkeztutako memoriak zor-



Berako herriko etxea egoera kaskarrean dago eta konponketak behar ditu. • JON ABRIL

Aspaldiko nahia da Berako udaletxearen kanpoko zein barreneko egiturak berritzea, eta bulegoak gaurkutzeko premia handia dago. Diru laguntzarik gabe bada ere, Udalak moldaketa lanei ekinen die datorren urtean.

tzi milioi pezetako aurrekontua biltzen zuela eta, diru laguntza kopuru horren arabera emanen duela jakinarazi zitzaion Udalari, eta ez proiektuan aurreikusitako hamabi milioi pezetan arabera.

Gaizki kanpotik eta barnetik

Hala ere, diru laguntza horrek ez du biltzen eraikinaren barreneko aldean egin beharreko lanik. Eta, egungo egoera zein den ikusita, premia larria du

eraikin osoak. Beheitiko solairuan Ttipi-Ttapa Fundazioa dago kokatua (izen bereko telebista eta aldizkaria kudeatzen duena), eta gizarte zerbitzueta-ko, nekazaritza ganberako eta bertzelako zenbait teknikarik erabiltzen duten bulego tiki bat. Lehenbiziko solairuan, berriz, herriko zenbait elkartek eta gobernuz kanpoko erakunde-
dek darabilten gelak daude, guztiak ere hagitz egoera txarrean. Bigarren solairuan batzar aretoa, idazkari-tza, interbentzioa, artxiboa, bake epaitegia, udaltzainen bulegoa, langileentzako komun bakarra eta alkatearen bulegoa daude. Instalazio guztiak arrunt zaharkituta daude, eta ura sartzen da nonahitik euria egin den egunetan. Uztailen udalbatzar aretoan zutabe bat paratu behar izan zen sabaia sendotzeko, eta balkoi azpian sareak paratu behar izan ziren, harri puskak erortzen baitira maiz.

Udalak diru laguntzarik ez jasota ere datorren urtean ekinen die berrikuntza lanei, "egoera honetan ezin delako gehiago lanik egin". Hala ere, Nafarroako Gobernuari lanak egin ondoren ere diru laguntza emateko eskatu dio. Berrikuntzek udal bulegoak beheitiko solairuan paratuko lituzkete, igogailua, berokuntza sistema (gaur egun ez dago halakorik); lehen solairuak bertzelako zerbitzuak jasoko lituzke, eta bigarrenean, batzar aretoa ez ezik, alderdi politikoentzako aretoak ere jasoko lituzke.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Eduene Elizondo

Baztango gazteak, kiroldegia eta euskaltzaina

Baztandik hainbat berri bildu ditu *Ttipi-ttapa* hamabostekariak bere azken zenbakian. Berri nagusia Rakel Goñi kazetari baztandarrak sinatu du, eta Xauli Gazte Informazio Bulegoaz ari da: «Ikasleentzat interesgarria izan daitekeen informazioa ikastetxera hurbiltzea da Xauli Gazte Informazio Bulegoaren helburua. Horretarako informazio gune batzuk sortuko dira eta haien zuzendari izateko ikastetxeko edozein ikaslek aurkez dezake bere proiektua. Guztien artean bi proiektu

hautatuak izanen dira eta elkarrekin talde bat sortuko dute. Talde honek 721,21 euroko beka eskuratuko du. Hautatua serratatu den taldean astean behin Xauli Gazte Informazio Bulegora hurbildu beharko du informazio bildu eta gero ikastetxean ezagutzera emateko».

Bestalde, Elizondoko kiroldegian zola moldatuko dutela aipatzen du *Ttipi-ttapa*-k Baztango berriei eskainitako orrialdean, aspalditik egoera kaskarrean baitzen. «Astero hainbat talde entrenatzen dira

han eta beharrezkoa zen moldaketa hori. Baztango Udalak lehiaketa publikorako deialdia eginen du lanak egiteko, 14.355.334 pezetako aurrekontuarekin».

Pello Salaburu euskaltzain arizkundera ere aipatzen du aldizkariak, liburu bat argitara eman berri duelako: «'XX. mendearen argiak eta itzalak' izenburupean bere lehen saiakera lana argitaratu du. XX. mendean izandako gertakarien hausnarketa egiten du idazleak saiakera horretan».



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Moto batean

Garai batean gorputz honen jaun eta jabe nintzen. Nire aldekoek zapi batez babesten zuten nire aurpegia jendearen begiradetatik. Gorputzaren atal guztietatik ibilia naiz horrela. Guztiek miresmenez entzun dute zapiaren atzealdeko ahotsa. Baina gaur gorputza ez dut oso osatua. Etengabe ari dira azala bonbardatzen, atal gehienak minatuak ditut (sorbaldatik, esate baterako, ezin da igaro) eta leku estrategikoen inguruetan sekulako borrorak daude. Orain arte nire indar hobereenen kuartela izan den ezkerreko eskua setiatuta daukat. Kanpoko indarrek eskua errenditzeko epe bat jarri didate, eta epe barruan eginez gero, nire sentimenduak bertatik libre ateratzen utziko dituztela agindu dute. Baina nik ez diet sinesten. Orain dela lau egun gauza bera esan zidaten urdaia setiatzen zeudenean eta amore eman nuenean ez zituzten kupidazko hitz horiek bete. Gogoratu nahi dut nire sentimendu eta umoreek urdaietatik ateratzen ziren bezala akatuak izan zirela. Beraien gorputzak Kolonera doan hestearen alboetan botata ikusteko aukera izan dute askok eta askok. Etsaiek ikerketa bat agindu dute. Ez dute aurrera eramango, noski. Hiltzaile horien aurrean, beraz, ez dut ezkerreko eskua entregatzeko asmorik. Indar neutral batzuei bai, entregatuko nieke, baina hemen ez da indar neutralik. Eskuari berri ere erasotzen ari direla esaten didate orain. Etsaiek aurrera egin omen dute behatz batetik. Nireek azazkalean eutsiko dietela zin egin didate. Seguru baietz. Kemen handikoak izan dira beti nire ezkerreko eskuaren sentimenduak. Pasa den astean sekulako zaplaztekoa eman zioten okupatutako oinari. Bertan ehunka hil ziren etsaiak. Baina, zertarako engainatu, gerra hau galduta daukat. Azazkalak ere errenditu beharko ditut. Nireak bihotzean bildu eta erretiratzeko azken aginduak banatu beharko ditut. Bertako sentimendu txiki bati bihotzaren kontrola eman, aurpegiaren aurrean zapia eusten dutenak agurtu, eta moto batean alde egingo dut betiko. •

Bizikletaz mendirik mendi

Jon
Gurutziaga
iruindarrak
Nafarroako
ibar hezeetan
barneratzen
diren hoge
ibilbidetako
liburua
osatu du




Nafarroan anitz dira mendiak, eta anitz dira mendizaleak. Asteburu oro mendiak oinez igotzen dituzten pertsonak betetzen dituzte gure tontorrak. Badira, hala ere, igoera beste modu batez egitea nahiago dutenak. Zenbait mendizale mendi bizikletaz ibiltzen dira mendirik mendi. Eta hainbeste mendiren artean gal ez daitezen, Jon Gurutziaga iruindarrak hoge ibilbidetako gida egin du, Nafarroako ibar hezeetako mendien artetik, eta batzuetan gainetik, mendi bizikletaz ibiltzeko.

● JON GURUTZIAGA

Jon Gurutziaga, 42 urteko iruindarra, duela hogeita bost bat urte hasi zen mendira ateratzen. Nafarroako 800 mendi baino gehiago igo ditu. Duela hamabi urte-tik hona, mendi bizikletaz ere igotzen ditu. Zaletasun horren ondorioz, hainbat artiku-lu idatzi izan ditu *Pyrenaica*, *Gure Mendiak*, *Manuel Iradier*, *Gorbea*, *Pagoeta* eta *Katazka* mendi aldizkarietan. Eta, eskuraturiko esperientzia ikusirik, liburu bat egitea otu zitzaion. Mendi bizikletaz egiteko hoge ibilbide sartu nahi zituen eta, horretarako, eremua zehazki definitu beharra izan zuen, aukera anitza baita: «Urbasa eta Andiatik Lapurdiraino eta Baztan eta Esteribartik Gipuzkoaraino. Nire ustez, eremu horretan daude Nafarroako ibilbi-derik onenak, eta horregatik aukeratu nuen».

Los valles húmedos de Nafarroa. Itinerarios en BTT y senderismo izenburua du liburuak (Nafarroako ibar hezeak. Mendi bizikletaz egiteko ibilbideak eta senderismoa). Ezkabarte, Anue, Ultzama, Baztan, Basaburua, Bortzirriak, Larraun, Araitz eta Xareta ibarretan barrena abiatzen dira liburuako ibilbideak. Denetara hoge dira, eta horietako lau Gipuzkoan bukatzen dira. Maila guzietako mendi txirindularientzako ibilbideak prestatu ditu Jon Gurutziagak, «mendira sekula joaten ez direnentzako, ibilaldi errazak prestatu ditut; maila ertaineko mendi txirindularientzako ibilaldiak; eta askotan aritzen direnentzako ibilaldi gogoragoak». Hoge horietako zazpi bata bestearen atzetik egin daitezke, astebeteko ibilaldia osatuz, Txantreatik Andoainaraino, Belate, Elizondo, Bera, Doneztebe eta Leiztatik pasatuz.

LOS VALLES HÚMEDOS DE NAFARROA



ITINERARIOS
EN BTT Y SENDERISMO
Jon GURUTZIAGA

Fitxa

Izenburua: 'Los valles húmedos de Nafarroa. Itinerarios en BTT y senderismo'
Egilea: Jon Gurutziaga
Argitaletxea: Autoedizioa
Orri kopurua: 158
Tirada: 800 ale
Salneurria: 1.700 pezeta
Sinopsia: Hoge ibilbide mendi bizikletaz egiteko Ezkabarte, Anue, Ultzama, Baztan, Basaburua, Bortzirriak, Larraun, Araitz eta Xareta ibarretan barrena. Argazkiak, mapak, krokisak eta azalpen zehatzak maila guztietako txirindulariendako.

Galdetu eta galdetu azalpen zehatzak emateko

Gurutziagak egin du den-dena: ibilbideak asmatu, mapak eta krokisak egin, azalpenak idatzi... Eta liburu argitaratzea ere bere kontu. Izan ere, bi argitaletxetara jo zuen, baina haiek nahi zutena ez zen zehazki Gurutziagak nahi zuena, eta, horregatik, nahiago izan du bere kabuz egitea. Garesti aterako zitzaion, liburu paperaren kalitatea ona delako, eta koloreetako argazkiak sartu dituelako. Baina bera hagitz gustura gelditu da emaitzarekin.

Ibilbide bakoitzak baditu bere krokisak, bere mapa eta bere azalpen zehatzak. Lotzen ahal ziren bi herri bururatzen zitzaizkion Gurutziagari, eta gero horien arteko biderik onena aukeratzeko (ez errazena). «Batzuetan galdetu behar izan diot herriko jendeari edo artzainei zer zen hori eta bertzea», erran du. «Ibilbide onenak lortzeko beti norbaiten informazio bila aritu naiz».

Gidako azalpenak irakurrita, nabaria da Jon Gurutziagak asko eta asko galdetu duela. Izan ere, gidan pare bat besterik ez dira izan izenik gabe paratu dituen bordak eta baserriak. «Ez baduzu bidea ezagutzen, lehen aldian ez duzu biderik onena eta politena aukeratu», esplikatu du Gurutziagak. «Horregatik, beti galdetzen dut non dagoen hau eta bertzea, eta gidan jar-tzen dut. Bizikletaz mendiz mendi ibiltzea ez da erraza, eta momentu batean inor gal-tzen baldin bada, aski du bertako edonori galdetzearekin ea non dagoen igaro behar-reko hurrengo baserria edo borda. Gidak zehazki erraten dio nondik pasatu behar duen».

Abiatu aurretik, ibilbidea ongi irakurri

Hoge ibilbideetako bakoitzak badu bere fitxa teknikoa, eta horretan Gurutziagak zehaztu du zenbat kilometrotako ibilbidea den, zenbateko gogortasuna duen ibilbideak, zein teknika maila behar den hori gainditzeko, eta zenbat metro igotzen eta jaisten diren. Ibilbideak zenbateko ziklabilitatea duen ere gaineratu du.

Ziklabilitatea da ibilbide batean bizikletaz egin daitekeen portzentajea. Hau da, ibilbide osoa bizikletaz egiten ahal bada, %100eko ziklabilitatea izanen du. Baina halako batean, bizikletatik jaitsi eta oinez zenbait metro egin behar izan badira, %98ko edo %90ko ziklabilitatea izanen du ibilbideak.

Gurutziagaren aburuz, Nafarroan mendi bizikletaz ibiltzeko leku zoragarriak daude, «batez ere, Baztanen eta Bortzirietan». Gurutziagari berdea gustatzen zaio. «Igantziko ingurua izugarri polita da; ez da leku itxia, eta sartzen den argiak paradisukoa dirudi». Bestetik, bizikletaz joateak mendia beste modu batez ezagutzeko parada eskaintzen duela uste du Gurutziagak, eta oinez joate-rakoan baino leku gehiago ezagutzeko aukera ematen duela.

Hori bai, inora joan baino lehen, ibilbideko azalpenak pare bat alditan irakurri behar da gutienez, Gurutziagak ohartarazten duenez. Ongi jakin behar da zer aurkituko dugun bidean, ezustekorik ez izateko. «Bestela, zure mailak ezin gainditzeko ahal dituen ozto-poak aurkituko dituzu», dio. Hain zuzen ere, hori saihesteko-edo egin du liburu Gurutziagak.

→ Asier Azpilikueta

Rabo berria

Haurdunaldi luzea. Labrit pilotaleku zaharberituari izena aldatu eta **Julian Retegi** jarri behar diote. Eratsungo jakitunak merezi du, foru hiriburuko bonboi-kaxan —*bombonera* euskaraz, Elhuyarren arabera— horrenbeste urtez horrenbeste lan egin eta gero. Nolanahi ere, argudio bera erabiliz, Arturo Kanpion euskaltegiari izena aldatu eta Juan Kruz Lakasta jarri beharko liokete. Niretzat, euskalduntzea haurdunaldi luzea izan zen. Bederatzi urtez aritu nintzen Comedias kaleko bonboi-kaxan **Axularren** hizkuntzako deklinabide, paradigma, nork-nori-nor eta enparau madarikatuekin borrokan. Okerrena, dena dela, erditzea izan zen, guztiz mingarria gertatu baitziztatzidan: hizkuntza nola edo hala menderatuta neure burua euskaldudutzat jo eta berehala jabetu nintzen guztiz euskalduntzeko hizkuntza ez ezik **Baltasar Garzon** epaile magoak —haur gaiztoei ikatza ez baina egurra banatzen die— *entorno* deitzen duen hori ere —*ingurua*, euskara jatorrean—ezagutu behar nuela: literatura, musika, bertsolari-tza...

Jaiotze mingarria. Esate baterako, oraindik ez dut batere argi euskal umorea existitzen den ala ez. Existitzekotan, arren, otoi eta faborez, ez dadila izan **Kike Amunarriz**ek darabilen hori. Txorakeriak txorakeria, nahiago

nuke Arrotxapeko umorearen antzekoa izatea. Izan ere, horretan ez dut zantzarik: Arrotxapeko umorea existitzen da. Ikurrina baino baskoagoa den Gerardo Monte Carlo tabernako mus bikotekidea ezagututa, ezin duda izpirik eduki. Gerardo Errotazar kalekoa da, Tazon senideko haur ugarien harrikaden pean hazitakoa —punteriarik eta borrokarako grinarik ez ei zitzaizen falta neskatico-mutiko ijitooi—, eta badu umore puntu berezia, eta ez da, preseski, sona handiko umore ingeles inteligentearen iguala.

Salbaziorako euskarria. Esate baterako, asteleheneko bazkalondoan, mus partidari ekin aurretik, Samuel zerbitzariari eguneroko liseriketa-laguntzailea, izotzik gabeko gin basokada eskatzen zion bitartean, Gerardok igandean *Durango*ko *aflojan* izana zela esan zidan —barkatuko didazue erdarazko hitz jokoa literalki eta euskaratu gabe biltzea joan den asteko zenbakian irakurri nuenez, Foru Erkedegoko euskararen santuarioa den honetan, **NAFARKARIA**n. Portzietto, ale hartan irakurri nuenez, orri hauetako

kolaboratzaile gehienek kolaborazioak bildu, eta liburu bilakatuta plazaratzen dituzte. Editorerik bada irakurleen artean, dei diezadala, eskaintzak aztertzeke prest nago eta—. Niri grazia egin zidaten hitz jokoak, batetik, eta Durango Azokara joatea oraindik gustuko izateak, bestetik. Aspaldidanik larunbat arratsaldean Hiper Eroskin igarotzea bezain gogaikarria iruditzen zait Konstituzioaren Eguna Durango Azokan pasatzea. Horregatik ez naiz joaten.

Ginari lehen urrupada ebatsi eta berehala, Gerardo «Ezetz asmatu zer erosi dudan Durango» batez oldartu zitzaidan. Irribarre meharraz hartu nuen desafioa, ziur bainintzen, gina hormarik gabe gustuko izan arren, **Ramon Saizarbitorien** lagun izotzua erositua zuela. Halaxe esan nion. Hala zela aitortu zidan. Baina beste zerbaitez ari zela gaineratu zuen. **Jon Alonso**, **Mikel Taberna**, **Kirmen Uribe** aipatu nizkion. Behin eta berriz ezetz erantzun zidan. Beldurtu nintzen, **Jon Arretxe**ren egutegi literarioko azken alea, 'Larunbatak', erositua zuelakoan. Zorionez, hori ere ez zela esan zidan. Azkenean, amore eman nuen. «Zer da?», nik. «Rabo berria erosi dut, berak, ozen, tabernan zeuden gainontzeko guztiek entzun zezaten. Izan ere, **Alvarez Rabo TMEO** aldizkari komikigile bikainak album berria plazaratu du Durango.

● ISRAEL SANCHEZ / EFE



Baltasar Garzon, epailea.

● XOUSE SIMAL



Alvarez Rabo, komikigilea.



panpilonia zirkus

«Poloniaaaaaa...»

San Nikolas elizako hormak garbitu eta erdi aroko harria agerian utzi zuten duela zenbait urte. Jendeari gustatu zitzaion, baina, zerbait hasi zen gertatzen Iruñeko elizarik zaharrenean. Kontua da bolada labor batean xahar franko zorabiatu zela eta bertze hamaika osasun gorabehera ere izan zirela, den-denak eliza barnean gertaturik... Zerk eraginik? Ba, inguruko solas-toki edo gezur-tokietan, hau da, okindegi, taberna, barazki-denda eta halakoetan, zabalduak zurrumurruei kasu egitera behintzat, zola azpiko hezur ustelduen urrin zaharrak eraginik.

Zurrumurrua, ordea, haratago joan zen bi atsoren ezipainetan: «Hi, hezur hotsak ere hasi omen dittun aditzen lur azpian, badakin lurra hilobiz josia zegoen...». Don Enrike Ardanaz erretoreak marmar hura errotik

moztea erabaki zuen. Bada, zola eta zolape osoa berri dute, distira emanez zurezko hilobi zahar haiei eta orain ez da zurajeen karraska hotsik ere aditzen lurra zapaltzerakoan. Garesti atera da, baina elizako apezek diotenez, «*merezi zuen eliztarren osasuna zaintzea, burua eta gorputzarena, eta arimaren osasuna ere, jakina, ez baitira gehiegi ere izaten gaur egun mezetara etortzen direnak*».

Egungo apezak oroiminak harturik daude. Lehenago baziren apez suharrak, pulpitutik predikari. (Azken berrikuntzan pulpituak kendu dituzte). Konparazio batera, Don Pedro Alfaro erretore gartsua. Galdetu bertzenaz Jimeno Juriori, Don Pedoren garrak Jose Marien liburu bat kiskali baitzuen, Jose Mari bera eskomikatu nahi izan zuelarik. Ez dira 30



Iruñeko San Nikolas eliza, izen bereko plazan.

● MIKEL SAIZ

zen maiz: hauraren negarra. Halakoetan, Don Pedrok, atsekabetua, besoak gora eta behera mugitu eta pulpitutik umearen ama kondenatzen zuen: «*Doa-zela ixtantean ama eta Jainkoaren haurtxo errugabe hori Sarasate pasealekuko eguzkialdera, umetxoak berriez ere eten ez dezan Jaungoikoaren hitza*». Ama giza-joa, masailak gorrituak, emakume manteliña beltz guztien begiradak haren

urte joan. Dena, idazteagatik ez dela sekulan izan Fermin izeneko santurik hiri honetan. Bada, Don Pedoren kezka nagusia komunismoa zen eta, bereziki, «*komunismoak oinperatua duen Poloniaa*».

Goizeko meza nagusian, ordea, eliza lepo zegoela, bertze ahotsik ere entzuten


garondan iltzaturik, gurditxo ahal bezala mugituta, bazihoan kanpora eta senarra bitartean, behin gertatu zen-bezala, ondoko konfesalekuan kukutua, makurturik, meza bukatu arte. *Istiluaren* ondotik Don Pedoren ahots sarkorra eta ozena berriz ere azken zoko-mokoetaraino iristen zen: «*Poloniaaaaaa...*».

Inaxio Perurena

HARRI-JASOTZAILEA

«Aitarekin konparatzeak ez nau orain hainbeste ilusionatzen»

MIKEL SAIZ



Egungo gazteek futboleak aritzea nahiago badute ere, Inaxio Perurenak herri kirolaren alde lan egiten saiatuko dela dio. Aitari zor dio harri-jasotzailea izatea, baina, hamazazpi urterekin, beti harekin konparatzeak nekatu egiten duela esaten du.

«Harri-jasotzaile izatea ez da bakarrik harriak jasotzea» edo «Herri-kirola: lana kirol bihurtua, beraz, kultura» dira Perurenatarren sotoan irakur daitezkeen zenbait esaldi. Han entrenatzen dira aita eta semea.

■ **13 urte zenituela, 120 kiloko harria altxatu zenuen. Zure azken marka 230 kilokoa izan da. Noraino iritsi nahi duzu?**

Zaila da helmuga bat jartzea. Nik ahal dudana egiten dut, baina zutik jarraitu arte segituko dut lanean.

■ **Txikitatik tamaina horretako harriak jasotzen hasi izanak ez al dizu kalte fisikorik eragin?**

Bat ere ez, eta, alde batetik, lagundu ere egin nau. Telebistari begira egon beharrean, gazetarik entrenatzea ona dela usate dut. Hala ere, ez dut inoiz topiko kargarik hartzen, bestela, hezurretan malformazioen bat izan nezake.

■ **Zer da zuretzat harri-jasotzea: zaletasun bat,**

ogibide bat ala sufri-mendu bat?

Ogibide bezala hartzea zaila da. Niretzat zaletasun bat da. Txikitatik aita ikusten nuen harriak altxatzen, eta, azkenean, gustatu egin zitzaidan. Egia esan, orain harrapatuta nago. Udan erakustaldi dezente egin behar izaten ditut, eta neka-neka eginda egoten naiz; hala ere, gogo gehiagorekin gelditzen naiz, plazetan giro oso ona izaten baita.

■ **Gogoan al daukazu harriarekin pasatako momentu txarren bat?**

12 urte nituenean, txirrindu-

«Gaizki pasatzen du amak.

Aita eta eta biok harriekin

probak egiten ibiltzen

garenean, eta berak

sukaldetik entzuten

digunean, sufritu egiten du»

laritzan ibiltzen nintzen, eta entrenamendu dezente egin behar izaten nituen. Behin bizikletan kristoren buelta egin eta gero, etxeratu nintzen, txalekoa jantzi nuen eta 65 kiloko harri batekin hasi nintzen. Atzera erori nintzen giharra ahul zegoelako; eskerrak aita nirekin zegoen eta harria airean hartu zuen; bestela, bertan seko geldituko nintzen.

■ **Zure aita harriak jasotzen hasi zen garaia eta egungoa oso desberdina da, ezta?**

Dudarik gabe. Lehen, entrenamenduak harriak behin eta berriro jasoz egiten ziren. Orain pesak eta ariketa bereziak egiten ditut. Aitarekin entrenatzen naiz, berak entrenamenduei buruzko eta halterofiliari buruzko liburu asko irakurtzen ditu, eta ariketa taulak eginarazten dizkit. Bestalde, orain gero eta zaletasun gutxiago dago; jendea futbola ikustera joaten da.

■ **Nola ibiltzen zara gusturago erakustaldietan:**

aitarekin batera parte hartzen edo bakarrik?

Aitarekin, noski. Zumaian, 170 kilo eta 133 bi eskuez jaso aurretik, aita kaleko arroparekin ikusi eta ni urduri eta baita hura ere. Aita ondoan txalekoa jantzita ikusteak lasaitu egiten nau.

■ **Zein da gustukoena duzun plaza?**

Guztietan oso gustura ibiltzen naiz, baina Eibarko Amaña auzoa esan behar-kodut. Bost urterekin joan nintzen lehendabizikoz, eta urtero-urtero joaten naiz.

■ **Aitarengandik jaso dituzun aholkuetatik, zein da itsuki jarraitzen duzuna?**

Denak, baina harri-jasotzaileok gerritik eta belaunetatik sufritzen dugu gehien. Aitak beti gerrikoa oso ondo lotuta eraman behar dudala esaten dit. Izan ere, gerrikoa oso luzea izaten dugu, 10 edo 15 bat metrokoa.

■ **Zaila al da beti aitarekin konparatua izatea?**

Hasieran ilusioa egiten zidan jendeak galdetzen zidanean ea aitaren markak hautsi behar ote nituen. Baina orain ez hainbeste. Izan ere, plaza betera joaten naizen aldiro gauza bera galde-

soslaia

Inaxio Perurenak 115 kilo eta 1'84 metroko altuera du. Heldu den urtarilaren 10ean hemezortzi urte beteko ditu gazte leitzarrak. Ez dauka pisurik galtzerik, bestela arazoak izanen lituzke harriak jasotzeko. 14 urte dituenetik anti-dopping probak egin behar izaten ditu.

Ikasketak amaitu berriak ditu eta ez dauka Unibertsitatera joateko asmorik. Aisialdian, mendian motoz buelta bat ematea atsegin du. Neska-laguna Iruñekoa dauka.

Bost urte zituelarik, herriko festetan ateratzen zen lehendabizikoz plazara. Geroztik, harriari lotuta bizi da. 13 urterekin bere aurreneko marka egin zuen: 120 kiloko harria jaso zuen. Joan den hilean, 230 kiloko koadroa altxatu zuen bi eskuz, eta 170eko kuboak esku batez.

tzen didate. Lekutan daude oraindik aitak lortutako markak. Jendeak uste du gazte has-teagatik gauzak errazagoak direla, baina ez da horrela. Harriari bost kilo gehiago jartzea ez da erraza.

■ **Amak nola bizi du zu harriekin gora eta behera ibiltzea?**

Gaizki pasatzen du amak. Aita eta biok harriekin probak egiten ibiltzen garenean eta berak sukaldetik entzuten digunean, sufritu egiten du. Baina ez dit inoiz uzteko eskatu; gainera, txalekoa eta gerrikoak berak egiten dizkigu.

→ Estibalitz Ortega



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Lehentasunak

Arazoi du Nuria Iturriagagoitiak. Nafar agintariendako Durangoko Liburu Azoka huskeria bat da. Izan ere, euskaldunoi berriro erasotzeko aukerarik emanen ez balu, beraien intereseko gaien sailkapenean ez litzateke agertu ere egingen. Behin Pegenautekeriak euskaltzaleengan sorturiko *malaostia* frogatu eta gozatuta, hor konpon Durango, diskoak eta liburuak. Dena den, sailkapenak aipatzen hasita, gureak baino normalagoak diruditen Euskalerriko bertze lurraldetako agintarienetan ere ez dirudi liburuak, eta kultura oro har, hasierako postuetan daudenik. Hori ere ez da oso harigarria ordezkatzan duten biztanleriaren benetakako ordezkariak izan nahi badute. Horregatik, politikoei ere *Marca* nahiago dute Anjel Lertxundiren azkena baino.

Sailkapen eta lehentasunez ari garenez, lehengo egunean nafar egunkari batek EAKo presidenteari egin zion elkarrizketa datorkit gogora. Erraztik errana da hurrengo nafar hauteskundeetara begira abertzaleen arteko koalizioaz mintzatzeko goiz dela eta, gainera, horrelakorik burutzea ez zaiola batere erraz iruditzen, bakoitza bere aita eta amaren seme-alaba delakoz. Elkarrizketa idatzietan tonua harrapatzea irati edo telebistan baino askoz zailagoa izanagatik, ez zirudien ideiak politiko abertzalea liluratzan duenik.

Lehentasunei buruzko azken aipamena: UPNrekin aurrekontu proiektua negoziatzen ari zela, Juan Kruz Aliik Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzarendako laguntzak berreskuratzeko ahalegina egin omen zuen. CDNko presidentek UPNren euskararekiko erasoak ikuspegi juridikotik aztertu omen ditu azken hilabeteotan eta horren konklusioa guztiok genekiena da: Euskararen Lege murriztailea are gehiago murriztu du, zona mistoa izeneko erdalduntzat hartzeko eta legeak euskalduna deitu zuen eremuan aurretik mistoan erabiltzen ziren irizpideak erabiltzeko. Hemengo politiko argienetakoa denez, Aliik badaki dirutan garrantzia mugatua duten erasoak onartezinak direla sistema demokratiko batean. Horren aurrean bi aukera zituen eta, nire aburuz, txarra aukeratu du. Lehentasun kontua hori ere.

gure aukerak

MUSIKA

- **Doneztebe:** Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren finala jokatuko dute bihar, 17:00etan, Bordatxo dantza lekuan.
- **Barañain:** Keltiar Aldea taldeak Gazteriaren Etxearen inaugurazioan joko du bihar, 20:00etan.
- **Aribe:** Ruper Ordorikak bere azken diskoa aurkeztuko du bihar, 20:30etan, Juntetxean.
- **Lekunberri:** Anestesia, Dank eta Garraixika taldeek gaztetxean joko dute bihar, 22:30etan.
- **Lizarra:** Kaotiko, Brutal Thin eta 4 Itzal taldeek gaztetxean joko dute bihar, 23:00etan.

BERTSOLARIAK

- **Orzaize:** Bertsulariak ikastolarat kanpainaren baitan, Patxi Iriart, Mizel Mateo, Gillen Hiriarren eta Ekhi Erremundegi gaur, 15:15etan, ikastolan.
- **Iruñea:** Bertso afaria egingen dute gaur Zaldiko Maldikon, 21:30etan, Amets Arzalluz, Sustrai Kolina eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsulariekin.

KIROLA

- **Iruñea:** Bihar Txantreako X. Herri Krosa jokatuko dute, 8 kilometrokoa. Irteera 12:00etan izanen da Irubide parkean, eta ordu erdi lehenago eman daiteke izena.

ZINEMA

- **Mutilagoiti:** *Karramarro Uhartea* marrazki bizidunetako filma eskainiko dute igandean, 18:00etan, kultur etxean.
- **Iruñea:** *Gezi urdina* filma pantailaratuko dute asteartean, 17:00etan, Zabaldin.

ANTZERKIA

- **Bera:** Dar-Dar taldeak *Alizia bitxikerien lurraldean* antzez-

lana taularatuko du bihar, 17:00etan, kultur etxean.

- **Burlata:** Bihar taldeak *Adarbakar* urdina txotxongilo emanaldia eskainiko du bihar, 17:00etan, Axular kultur elkartean.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Mikel Sorauren historiariak *Navarra, ideologia e historia* izenburuko hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30etan, Nabarria kultur zentroan.
- **Olazti:** Gaur, 20:00etan, Lizarrako Espeleologia Taldekoek Islandiako glaziarretara egingiko

ikerketa bidaia azalduko dute Domingo Bados eskolan.

- **Iruñea:** Kike Amonarrirek *Eske hau supergaia da. XXI mendeko hizkera* izenburuko hitzaldia emanen du gaur, 20:00etan, kultur etxean.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Arrosadiako haur behartsuei emateko jostailuak, liburuak, komikiak... biltzeko kanpaina abiatu du San Fermin peñak. Eman beharrekoa peñan (Gelbenzu, 13-15) edota Euskadiko Kutxaren Gaiarre kaleko aretoan uzten ahal da astelehe-

netik ostegunera 18:00etatik 20:00etara.

BESTAK

- **Iruñea:** Bihar Txantreako Eguna ospatuko dute, egun osoz: dianak (9:00); haurrentzako krosa Irubide parkean (10:30); puzgariak, azoka eta xake erraldoia Euskara plazan (11:00); trikitilariak Irubiden (12:30); dantzariak Euskara plazan (12:30); herri bazkaria Auzotegin (14:30); Sun magoa euskaltegian (17:30); karrikiriak Ana Maria Sanzen; zezensuzkoa (19:30); eta gaupasa (01:00).

• JOXE LACALLE



Artista orekaria

Natxo Zenborain Iruñeko artista polifazetikoa dugu, hau da, milaka aurpegiko artista. Egunotan Florentziako Arte Garaikideko Nazioarteko Biurtekoan da, bere ibilbideko obra esanguratsuenen lagin batekin. Zenborainek, batez ere, internet bidez lan egiten du egun eta bere lan gehiena bere webgune pertsonalean aurki dezakegu: www.terra.es/personal/19zen.z. Bertan ikus dezakegunez, Zenborain artistaren lana handia da oso. Tamainaz, ordea, ezin erran daiteke Zenborain handiegia denik. Horregatik, Florentziako aurkeztu zuenean espaloira igotzeko eskatu zion argazkilariak, argazki hobe egiteko. Eta orduan Zenborainek berriz ere harritu egin gintuen. Katedraleko burdinesia lagun, horizontalean jarri zen enkoadraketan ongi sarzeko. Itzela.